Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

758

AGINDUA, 2011ko otsailaren 1ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, 2011ko arrantzakanpainan Euskal Autonomia Erkidegoan harrapatu eta lurreratu ahal izango diren berdelen gehienezko kopuruak finkatzen dira.

Arrantzako politika bateratuaren helburuen artean honakoa dago: uretako baliabide biziek ekonomiarako, ingurumenerako eta gizarte jasangarrirako baldintzak ahalbidetzea, arrantzako politika bateratuarekin bat, arrantzako baliabideen kontserbazio eta ustiaketa iraunkorrari buruzko Kontseiluaren 2002ko abenduaren 20ko 2371/2002 (EE) Araudian ezarritakoari jarraiki.

Martxoaren 13ko 6/1996 Legeak, Euskadiko itsas arrantzari buruzkoa, ezartzen du arrantzarako ezartzen diren ordenamendu eta araudiek modu iraunkorrean babestu eta kontserbatu beharko dituztela itsas baliabideak eta kostaldeko komunitateen garapena. Helburu horiek lortze aldera, aipatutako legeko 11. artikuluak baimena ematen die arrantzako agintariei «espezien kontserbazioa eta kudeaketa bermatzeko eta merkaturatzea hobetzeko, arrantzaleen prezio eta diru-sarrerak mantenduta, egoki den edozein erabaki hartzeko».

Berdelaren *(Scomber scombrus)* stockaren egoera ikusita, gure uretan espeziearen iraunkortasuna bermatuko duten neurriak hartzea gomendagarria da, arrantza zentzuko eta zuzenari lagun diezaioketen alderdiak erregulatuz. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak merkaturatzearen arloan esleituta dituen eskumenak baliatuz, agindu honen bidez, une jakinetan merkatuan ekarpen handiak izatea ere eragotzi nahi da, eta horrela prezioak maila egokian mantentzen laguntzea, eta ondorioz, arrantzaleen diru-sarrerak ere bai.

Bestalde, 2010eko abenduaren 20an, otsailaren 10eko ARM/271/2010 Agindua aldatzen duen abenduaren 21eko ARM/3315/2010 Agindua argitaratu zen; horren bidez, berdelaren kuota banatu eta kudeatzeko irizpideak ezarri ziren, eta arautu egin zen espezie horren harrapaketa eta lehorreratzea. Agindu horren helburua indargabetu egin daiteke, autonomia-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

758

ORDEN de 1 de febrero de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se fijan los volúmenes máximos de capturas y de desembarques de verdel en la Comunidad Autónoma de Euskadi para la campaña pesquera de 2011.

Entre los objetivos de la política pesquera común se encuentra el de garantizar que la explotación de los recursos acuáticos vivos facilite unas condiciones económicas, medioambientales y sociales sostenibles, conforme a lo establecido en el Reglamento (CE) n.º 2371/2002, del Consejo, de 20 de diciembre de 2002, sobre la conservación y explotación sostenible de los recursos pesqueros en virtud de la política pesquera común.

La Ley 6/1996, de 13 de marzo, de pesca marítima de Euskadi, dispone que las medidas que se establezcan para la ordenación y regulación de la actividad pesquera tenderán a proteger y conservar sobre una base sostenible los recursos marinos y el desarrollo de las comunidades costeras. Con el fin de lograr estos objetivos, el artículo 11 de la citada Ley habilita a las autoridades pesqueras para adoptar «cualquier medida que resulte adecuada para garantizar la conservación y gestión de las especies y mejorar la comercialización, manteniendo el nivel adecuado de los precios e ingresos de los pescadores».

La situación del stock de verdel o caballa *(Scomber scombrus)* aconseja adoptar medidas encaminadas a garantizar la sostenibilidad de la especie en nuestras aguas, regulando aquellos aspectos que puedan contribuir a una explotación racional y adecuada de la pesquería. Además, en el ejercicio de las competencias que en materia de comercializaición tiene atribuidas la Comunidad Autónoma de Euskadi, por medio de la presente Orden también se pretende evitar aportaciones masivas al mercado en momentos puntuales, ayudando así a mantener un nivel adecuado de los precios y, en consecuencia, de los ingresos de los pescadores.

Por otra parte, el día 20 de diciembre de 2010 se ha publicado la Orden ARM/3315/2010, de 21 de diciembre, por la que se modifica la Orden ARM/271/2010, de 10 de febrero, por la que se establecen los criterios para el reparto y la gestión de la cuota de caballa, y se regula su captura y desembarque. El objetivo perseguido por esta Orden puede

erkidegoko portuetan barruko uretako harrapaketak eta lehorreratzeak arautuko dituen autonomia-erkidego mailako araua eransten ez bazaio.

Arestian esandakoaren haritik, agindu honetan ezartzen dira autonomia-erkidegoko portuetarako gehieneko bolumenak: bai Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretako harrapaketenak eta bai lehorreratuko diren berdelenak, nonahi harrapatuta ere.

Azaldutako arrazoiengatik, eta arrantza-sektoreko erakunde profesionalei kontsulta eginda, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta esparrua.

Agindu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretarako berdelaren gehieneko harrapaketa-bolumenak ezarri nahi dira *(Scomber scombrus)*, baita barruko uretan eta gainerako uretan egindako harrapaketetatik autonomia-erkidego honetako portuetan egiten diren berdel lehorreratze-bolumenak ere. Hori guztia 2011ko arrantza-kanpainarako.

2. artikulua.– Berdel-harrapaketen eta eguneroko lehorreratzeen gehieneko bolumenak, arrantza-tresna txiki eta ingurasaredun ontzietarako.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan berdela *(Scomber scombrus)* harrapatzen duten ontziek ondoren adieraziko diren eguneko gehieneko harrapaketa eta lehorreratze mugei eutsi beharko diete, betiere urteko harrapaketa-kopurua (UHK) eta kuotak errespetatuz:

– Tresna txikiak: 2.300 kg/ontziko eta eguneko.

– Ingurasare bidezko arrantza: 8.000 kg/ontziko eta eguneko.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan tresna txikidun eta ingurasaredun ontziek egindako eguneroko harrapaketa eta lehorreratzeen gehieneko bolumena kalkulatzeko, egun horretan bertan beste ur batzuetan egindako harrapaketak ere kontuan izango dira. Harrapaketa eta lehorreratze guztien kopuruan, lehen ezarritako mugak bete beharko dira.

3.– % 5eko tolerantzia onartuko da pisuan, aurreko puntuetan adierazitako kopuruetan.

4.– Ontzi batzuetako berdela beste ontzi batzuetakoei ematea debekatuta dago.

3. artikulua.– Beste arrantza-tresna batzuekin harrapatutako berdela Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan lehorreratzeko gehieneko bolumenak.

quedar desvirtuado si no se acompaña por una norma autonómica que regule las capturas en aguas interiores y los desembarques en los puertos de la Comunidad Autónoma.

En consonancia con lo anterior, la presente Orden establece los volúmenes máximos tanto de capturas en aguas interiores de la Comunidad Autónoma de Euskadi como de desembarques de verdel, independientemente del lugar de su captura, en los puertos de dicha Comunidad Autónoma.

Por las razones expuestas, y una vez consultadas las organizaciones profesionales del sector pesquero,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto y ámbito.

La presente Orden tiene por objeto fijar los volúmenes máximos de capturas de verdel *(Scomber scombrus)* en las aguas interiores de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como los desembarques de verdel *(Scomber scombrus)* en los puertos de esta Comunidad Autónoma procedentes de las capturas efectuadas tanto en las aguas interiores como en el resto de las aguas, todo ello para la campaña pesquera de 2011.

Artículo 2.– Volumenes máximos de capturas de verdel y de desembarques diarios para embarcaciones de artes menores y cerco.

1.– Las embarcaciones que pesquen verdel *(Scomber scombrus)* en aguas interiores del País Vasco, se atendrán en el volumen de sus capturas y de sus desembarques a los topes máximos siguientes, por día natural, respetando en todo caso el Total Admisible de Capturas (TAC) y las cuotas establecidas:

– Artes menores: 2300 kg/buque y día.

– Modalidad de cerco: 8.000 kg/buque y día.

2.– Para el cálculo del volumen máximo de capturas y de desembarques diarios realizados por las embarcaciones de artes menores y de cerco en las aguas interiores de la Comunidad Autónoma de Euskadi se computarán también las capturas que se obtengan ese mismo día natural en otras aguas. La cantidad total de capturas y desembarques deberá respetar los topes anteriormente establecidos.

3.– Se contemplará una tolerancia del 5% en peso respecto de las cantidades señaladas en los puntos anteriores.

4.– Quedan prohibidas las cesiones de verdel entre embarcaciones.

Artículo 3.– Volúmenes máximos de los desembarques de verdel en los puertos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, capturados por medio de otros artes de pesca.

1.– Arrasteko arrantza-tresnak: 8.000 kg/ontziko eta eguneko.

% 5eko tolerantzia onartuko da pisuan adierazitako kopuruetan, eta debekatuta dago ontzien artean bata besteari berdela ematea.

2.– Arrastea eta ingurasareak ez diren beste arrantza-tresna batzuk, kanpoko uretan: ontzi eta egun bakoitzeko, 2.300 kg lehorreratzea onartuko da. % 5eko tolerantzia onartuko da pisuan adierazitako kopuruan, eta debekatuta dago ontzien artean bata besteari berdela ematea.

4. artikulua.– Berdelaren-kanpaina hasteko data.

Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretako berdelaren arrantzaren kanpaina hasteko data otsailaren 15a izango da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.–Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikultura zuzendariari, agindu honetan ezarritakoa garatu eta gauzatzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

Bigarrena.–Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 1a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

1.– Artes de arrastre: 8.000 kg/buque y día.

Se contemplará una tolerancia del 5% en peso respecto de las cantidades señaladas, quedando prohibidas las cesiones de verdel entre embarcaciones.

2.– Otros artes distintos del arrastre y cerco en aguas exteriores: se permitirá un desembarque de 2.300 kg/buque y día. Se contemplará una tolerancia del 5% en peso respecto de la cantidad señalada, quedando prohibidas las cesiones de verdel entre embarcaciones.

Artículo 4.– Fecha de inicio de la campaña de verdel.

La fecha de inicio de la campaña de pesca de verdel en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco será el día 15 de febrero.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Director de Pesca y Acuicultura para dictar las resoluciones precisas para el desarrollo y cumplimiento de lo establecido en la presente Orden.

Segunda.– Esta Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de febero de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.